

ADIERAZPEN HASTAPENAK 0-3 URTEKO HAURRAK

Haur Hezkuntzako Graduako irakasle talde baten ekimenez eta Musika, Plastika eta Gorputz Adierazpenaren Didaktika Sailaren laguntzaz jardunaldi bat antolatu dugu. Jardunaldiaren gaia **0-3 urteko haurren errealitatean adierazpen bideen hastapena** nola ematen den aztertzea litzateke.

Horratarako bi aditu gonbidatu ditugu beraien esperientzia esparru honetan interesgarria izango delakoan.

Lehenengoa **Teresa Godall Castell** irakaslea izango da, Bartzelonako Unibertsitateko Irakaslea eta Motricidad Infantil izeneko mentzioaren koordinatzaile da, beste hainbat meritu eta esperientzia ditu adin honetako haurren mugimenduarekin lotuz. Bere hitzaldia 0-3 urte tarteko adinen haurren mugimenduaren ingurukoa izango da.



Bigarren hitzaldia berriz **Alfredo Hoyuelos** irakasleak emango du. Berau Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakaslea izan da baina gaur egun Iruñeako Haur Eskoletako Adierazpen Tailerretako Koordinatzailea da. Alfredok ere esperientzia zabala du adin hauekin baina batez ere artea eta musika arloekiko adierazpenei lotutakoa izan da bere jarduna azken urte hauetan.



Egitaraua honakoa izango da:

OTSAILAK 3

11tatik 13tara **Teresa Godallen** hitzaldiak izenburu hau izango du:

**LO GENUINO DEL MOVIMIENTO EN EL SER HUMANO.
PREJUICIOS Y CREENCIAS A PARTE.**

16:30tatik 18:30tara **Alfredo Hoyuelosen** hitzaldiak izenburu hau izango du:

ADIERAZPEN TAILERRA: LERROEN ARTEKO MEZUAK

Bi saioak Blacboard Collaborate aplikazioan online izango dira, hemen duzuen esteka honetan:

<https://eu.bbcollab.com/guest/8c231f23153e43e6af551b883e7c050c>